

IRABAZI ITURRIAK

Irabazi iturriak oso garrantzitsuak dira gure negozioak funtziona dezan, eta funtsezkoa da eskaintzen ari garenerako prezio mota bat ezartzea, hala nola zerbitzuaren prezioa.

Gure kasuan **prezio finkoak** dira erabiliko ditugun irabazi iturriak, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta baitaude. Prezio finkoen barruan, **ezaugarrien araberako prezioa** izango litzateke gure

enpresak erabiliko duena, zerbitzuaren araberako prezioa, zerbitzu bat eskaintzen dugulako eta gure zerbitzua kalitatezkoa izateaz arduratzen garelako.



Aktiboen salmenta da enpresak diru sarrerak sortzeko erabiliko duen modua, eta hain zuzen ere, eskaintzen ditugun zerbitzuak dira gure aktiboak. Bestetik, **ordainketa errepikarioa** da erabiliko duguna, hilero jarriko baitugu kuota bat.



2 zerbitzu mota eskaintzen ditugu:

Alde batetik, bi klase eskaintzen ditugu astean, aukeran: astelehenetan eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan (ordu zehatzak gure bezeroen eskariaren arabera baieztatuko lirateke). Hasierako prezioa hilean 60 eurokoa izango litzateke.



Bestalde, hondartzan ere zerbitzu bat eskainiko genuke astean behin, ostiraletan 2 ordu. Kasu honetan hainbat kirol probatzeko aukera eskaintzen dugu (padelsurfa, adibidez), eta kirola aldatuz joango ginateke, esperientzia berriak eskainiz. Horretarako eskaintzen dugun prezioa 40 eurokoa da hilean, eta 80 eurokoa bi zerbitzuak kontratatzen badira (hondartzakoa eta igerilekukoa).

Baina eskaintzen duguna ezinduentzako zerbitzua denez, laguntza bat eskatuko genuke, eta hori adostuz gero, 10 euro jaitsiko genituzke gure prezio guztietatik.

Beraz, gure prezioak honako hauek dira:

IGERILEKUKO ZERBITZUA (astean bitan, 4 ordu)	Hilero 60€ (50€ laguntzak eskaintzen badizkigute).
HONDARTZAKO ZERBITZUA (astean behin, 2 ordu)	Hilero 40€ (30€ laguntza eskaintzen badizkigute).
BI ZERBITZUAK (astean hirutan, 6 ordu)	Hilero 80€ (70€ laguntzak eskaintzen badizkigute).

